

SENTIMENDUEN BINGOA

1.- Deskribapena

Bingoan jolastean datza, hainbat sentimendu adieraziz.

2.- Helburuak

- Mimikaren bidez sentimenduak eta emozioak adieraztea.
- Hainbat sentimendu eragiten dituzten egoerak aztertzea.
- Haurren artean konfiantzazko giroa sortzea.

3.- Partaideak

6 urtetik aurrera. Talde txikia.

4.- Materiala

Bingoan jolasteko kartoiak prestatu behar ditugu; kartoietakoa laukietan sentimendu eta emozio batzuen izenak idatziko ditugu (pozik, haserre-suminduta, lasai, txundituta, gorrotagarria, zapuzturik, lagunkoia, ausarta, aspergarria, harroa, urduri, ulerkorra, ona, barregarria, beldurtuta, interesatuta, erruduna, maitekorra, harrituta, itxaropentsu).

5.- Garapena

Haur bakoitzari bingoan jolasteko kartoi bana emango zaio. Ontzitik hitz bat ateratzen dugunean, haurrek irten den sentimendua edo emozioa adierazi beharko dute. Ondoren, sentimendu hori kartoian dagoen egiaztatuko dute, eta baldin badago, ezabatu egingo dute.

Norbaitek lerro bat kantatzen badu, edozein jokalariri lehenago irten den emozioetakoa bat sentitu duen egoera bat deskribatzeko eskatuko dio.

Norbaitek bingo kantatzen badu, bere kartoiko lau izkinatan dauden hitzak erabiliz istorio bat kontatu beharko du. Zailtasunak baditu, taldekideek lagundu egingo diote.

Azkenik, pertsona horrek kontatutako istorioa benetan gerta litekeen ala ez eztabaidatuko da.

6.- Ebaluazioa

Jostagarria izan al da? Nola sentitu zarete sentimenduak eta emozioak adierazterakoan? Zaila egin al zaizue? Zuen lagunek lagundu egin al dizuete istorioa kontatzen? Besteek entzuten zintuztetela sentitu al duzue? Dibertigarria izan al da norbait adierazten ari zen sentimendua asmatzea? Gatazkak nola konpondu daitezke?

7.- Iturria

Cristina Hernández

<http://www.primaria.profes.net>